

Gaitza: jarrerak, galderak, balizko erantzunak...

Pertsona guztiok, jakintsu ala ezjakin, aberats ala behartsu, erlijioso, axolagabe eta ateo, aurre egin behar izaten diogu nahitaez, era batera edo bestera, porrot eta gaitzaren arazoari. Gure egitasmo guztiak gelditu egiten dira gaitzaren aurrean, hau da, gaixotasunaren, zahartzearen, zoritxarren, oinazearen edo heriotzaren aurrean. “Gaitza”, oinaze eta sufrimendua eragiten duena da.

Gaitzaren nabaritasuna

Guzti honetaz jabeturik bizi gara:

- Gaitza saihestezina dela. Egunez egun, honelako berriak jasotzen ditugu edo horrelako esperientziaren bat dugu: heriotzak errepidean, gerrak, hondamendi naturalak, gaixotasun eta zoritxarrak, bizia alferrik galtzea, laguntasun eskasa...
- Zaila da gaitza gainditzea. Gaitzaren, sufrimenduaren aurka borrokatzen dugu; osoa ez bada ere, arrakasta apur bat ere izaten dugu, baina inoiz ezingo ditugu gainditu sufrimendu edo apurketa maila batzuk. Gaitzaren azken maila, heriotza da.
- Lehenago ala beranduago, geu ere ukituko gaitu gaitzak, bizi izango dugu zoritxarren bat.
- Sufrimendua txarra da. Zorionerako eginda gaude eta gure barrua jarki egiten da inoiz ongi etorria ez den “etsaitzat” jotzen den gaitzaren aurrean.

Gure erantzukizuna gaitzaren aurrean

Gure erantzukizunari dagokionez, gaitz guztiak ez dira berdinak.

- Gaitz batzuen jatorria gure gizatasunaren mugatasun eta hauskortasunean datza: gure gorputza hondatu (gaixotasuna) eta itzali (heriotza) egiten da.
- Gainditzeko gaituzten eta menderatu ezin ditzakegun hondamendi naturalek eragiten dute beste hainbat: sumendiaren erupzioa, hurakana, uholdeak, lurrikara...
- Honelako kasu gehienetan ez dugu erantzukizunik, nahiz eta gizakiak gaitz horietako batzuei aurre egiteko eta beraien aurka borrokatzeko gaitasuna izan, hain zuzen ere, arrakasta esanguratsuak lortuz.
- Gaitz batzuetan, ordea, badugu erantzukizunik, esate baterako, norberekoikerian, bidegabekeria, manipulazioan, zapalketan, giza eskubideen urraketan... Guzti horiek elkarri eragiten diogun sufrimenduaren adierazle dira.
- Bada, beraz, saihestezina den gaitza eta geure ardura ere baden gaitza; gure arduraren emaitza ez den eta kontrola ezin dezakegun gaitza (nahiz eta giza adimenaren ezarpen arduratsuak, neurri batean edo bestean, aurre egitea edo ondorioak arintzea ekarri) dago alde batetik eta, bestetik, bakarka edo taldean, zuzenean ala zeharka, geuk ere sortzen duguna eta konpondu ere geuk konpondu behar duguna.

- Ez litzateke zuzena besteak –Jainkoa barne- gaitzaren erantzule egitea, honen jatorria eta konponbidea, neurri handi batean, geuri dagokigunean, hau da, geuk kontzientziatu eta konprometitu behar dugunean.

Galderak bata bestearen atzetik

Zoritxarra, oinazea, sufrimendua... dala-eta, era gutxi-asko kontzientean, maiz gure barru-barruan eragina duten, sustraira doazen galderak egiten ditugu:

- Zergatik batzuei bai eta beste batzuei ez? Zergatik batzuei gehiago eta beste batzuei gutxiago? Zergatik gaitz guztiak bakar batzuentzat?
- Merezi du jaiotzea, bizitza, neurri handi batean, atsekabez eginda badago eta, azkenean, hil egin behar badugu?
- Erabakita zegoen hau gertatuko zena?
- Ba ote du zentzurik atsekabeak?
- Jainkoak nahi ote du hainbeste gaitz? “Probak” jartzen ote dizkigu?
- Nork atera gaitzake gaitzetik?

Hainbat erantzun eta jarrera sortzen da gaitzaren aurrean:

- *Alde-egitea* edo *ihesa* aukeratzen du hainbatek
 - Beste batzuk *asaldata* egiten dira: oihu, protesta egiten dute
 - Badira erabateko ezkortasunez *etsia hartzen* dutenak ere
 - *Bere baitan ixten* da asko eta asko
 - Eta *errudunak* –bestea, medikua, norbere burua, Jainkoa...- *bilatzen* dituztenak ere badira
 - Batzuek *duintasunez onartzen dute*, saihestezina denean
 - Batzuek *aurre egiten diote sufrimenduari, honen aurka borrokatu egiten dute*: deuseztatzen edo gizatasuna kentzeko gaitasun hori galarazten dion mistikaz bizitzen saiatzen dira.
- “Barruko indar” hau bizipen erlijiosotik, fedetik dator sarritan.